

## BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

1. orria

### Enpresaren identifikazioa eta helbidea

- IGEPAK, S.A.
- Legarda 2, 20170, Usurbil (Gipuzkoa)

### 1254/1999 Errege Dekretua bete dela adieraztea

IGEPAK, S.A. enpresaren instalazioak uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteko ditu (Errege Dekretu horren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira).

Araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitakoari jarraiki, enpresak nahitaez aurkeztu beharreko segurtasun-ixostena aurkeztu dio eskumena duen agintari.

### Enpresaren jarduera

IGEPAK, S.A. enpresak aerosolak fabrikatzen eta ontziratzen ditu.

### Istripu larria eragin dezaketen gaiak

Fabrikazio-prozesuan gai jakin batzuk erabiltzen dira, besteak beste, propanoa, isobutanoa, propanoa eta antzeko gas likidotuak eta alkoholak. Hala ere, gai horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, eta arriskuak aztertzeko egin diren analisiak ikusita, istripu larriak (alegia, instalaziotik kanpo eragina duten istripuak) bakarrik izan daitezke gai hauek tartean direnean:

- Gas likidotuen biltegiak
- Aerosolen paletak eta era askotako ontziak (adb.: koloniak)

**Izan daitezkeen istripu larriak eta harien ondorioak**

Egoera horren ondorioz, instalaziotik kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:

- Ihes garrantzitsu batek eragindako gas-hodeiak eztanda egiteak.
- Biltegi bat hautsi ondoren sortutako gas-hodeiaren deflagrazio edo "suzko bola", eta, gero, su hartzea burututako produktuaren biltegian izandako sutearen ondorioz.
- Gas-ihesak su hartzean izandako "suzko dardoak" edo isuriak su hartzea

Istripu hauek gainpresioak (eztanda gertatzen bada) edo bero-erradiazioak (deflagrazioa, su-bola, sutea edo su-zorrotada) sor ditzakete eta horiek pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean eragina izan dezakete. Aurreikusitako gainpresioaren edo bero-erradiazioaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira: Esku hartzeko alderdia (EA) eta alerta-egoerako alderdia (AA). Hona hemen alderdi horiei dagozkien balioak eta ondorioak:

**GAINPRESIOA**

Alderdiak	Gainpresioaren balioa (mbar)	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
EA	125	Kristalak haustea.	Kristalak jaurtitzearen ondorioz, zauritzea.	---
AA	50	Trenkadak eta panelak haustea.	Trenkaden artean harrapatuta geratzea eta, ondorioz, zauritzea.	---

**BERO-ERRADIAZIOA**

Alderdiak	Bero-erradiazioa (kW/m <sup>2</sup> )	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
EA	5	---	2. graduko erreduak (> 30 s.)	---
AA	3	---	1. graduko erreduak (> 30 s.)	---

**Istripu larria izanez gero biztanleei ohartaraztea eta informazioa ematea**

Goian aipatutako istripuetakoren bat eragin lezakeen istripu-egoera badago instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleei ohartarazteaz eta informazioa emateaz. Honako bitarteko hauek erabiliko dira biztanleei ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniaz. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak egingo ditu.
- Gizarte-komunikabideak (telebista eta irratia).

**Instalazioan larrialdiren bat badago biztanleek hartu beharreko neurriak**

Instalazioan istripu larria gertatzen bada, biztanleek ondoren agertzen diren neurriak hartuko dituzte, istripu-egoeraren ezaugarriak, horren bilakaera eta instalazioekiko hurbiltasuna kontuan hartuta:

- Konfinamendua
- Urrutiratzea

Hauek dira konfinatzeko edo urrutiratzeko oinarritzko jarraibideak:

**KONFINAMENDURAKO ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK**

- KALEAN BAZAUDE, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN, ETA BILATU BABESLEKUA.
- ITXI ATEAK ETA LEIHOAK (AHAL BADA, JAITSI PERTSIANAK) ETA ALDENDU. BEHARREZKOA BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKITUETAN. EZ ERABILI KANPOKO AIREZTAPENENKO APARATURIK.
- EZ EGON ERAIKUNTZEN BEHEALDEETAN (SOTOETAN, GARAJEETAN, e.a.). AHAL BADA, IGO SOLAIRU GORENETARA.
- EZ ZAITEZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA.. HAURRAK ARDURAPEAN DITUZTENEK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DUTEN.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK.

**URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK**

**BEHARREZKOA BADA URRUTIRATZEA ETA BABESLEKUA BILATZEA, NORA ETA NONDIK JOAN BEHAR DEN ADIERAZIKO DA, ZUZENEAN JAKINARAZIZ EDO KOMUNIKABIDEEN BITARTEZ.  
ONDOKO JARRAIBIDE HAUEI SEGITUKO ZAIE:**

- URRUTIRATZEN ZAREN BITARTEAN, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN, ETA BILATU BABESLEKUA
- JOAN BEHARREKO LEKURA HELTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOKAL EDO ERAIKIN BATEN BARRUAN, ETA ITXI LEIHOAK ETA ATEAK.
- EZ ZAITEZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA.. HAURRAK ARDURAPEAN DITUZTENEK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DUTEN.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK.

**Istripu larria izanez gero instalazioan egin beharrekoa**

1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrei jarraiki, instalazioan istripu larria izanez gero, honako hau egin beharko da:

- Neurri egokiak hartu beharko dira, istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzen.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da.

Instalazioan bertan egiten diren esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak Barruko Larrialdi Planean jasota daude.

**Kanpoko Larrialdi Plana**

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdi Plana prestatu du IGEPAK, S.A. enpresaren instalazioan gerta litezkeen istripuetarako. Plan horren bidez, antolatzeko modua eta beharrezkoak diren baliabideak ezarri dira, instalaziotik kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruak nola edo hala kaltetu dezaketen egoerei aurre egiteko.

Kanpoko Larrialdi Plan honetan, larrialdi-zerbitzuek nola jokatu behar duten adierazi da eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jaso dira.

**Informazio gehigarria**

Informazio gehigarria nahi izanez gero:

- Web gunea: [www.euskadi.net/112](http://www.euskadi.net/112)
- Telefonoa: 945 01 88 83